

Joxe Mujika Etxeberria

*Ezkio-Itsaso,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea

Biografia



Joxe Itsasoko Urteagandi baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen; eta ama, berriz, Garingoa. Sei urte zituela hasi zen eskolan; lau urtez ibili zen bertan, hamaika urterekin morroi joan baitzen senitarteko batzuen etxera. Soldaduska egin aurretik, basoko lanetan hasi eta hala ibili zen erretiroa hartu zuen arte.

Zintak

EZK-012

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-10-27
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Euskadiko zaharrena Garingo bere izeba

- **Erref:** EZK-012/001
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Izen-abizenak. Itsasoko Urteagaundia baserrian jaioa. Aita etxekoa eta ama Garingoa. Garingo senide bat 110 urterekin hil zen. Euskadiko zaharrena omen zen.</p>

2. Itsaso askoz ere handiagoa garai batean

- **Erref:** EZK-012/003
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:05:50

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Itsaso garai batean udalerrria zen eta orain baino askoz handiagoa izandakoa da. 100 baserri izan zituen. Gainera Arriaran ere Itsasokoa zen. Baina azkenean Beasainek bereganatu zuen Arriaran. Gudugarreta herria izandakoa da, nahiz eta elizarik ez izan.

3. Astigarreta, hustu egin den auzoa

- **Erref:** EZK-012/004
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:23

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Astigarreta leku inportantea izandakoa da, bi eliza, bi taberna... Baina orain ia hustuta dago, azken erroldaren arabera 12 lagun bizi dira bakarrik. Urruti

geratzen da. Ezkiok eta Itsasok Matxinbenta aldean zituzten baserriak ere hustu egin dira ia denak.

4. Harizti ederrak Ezkion sasoi baten

- **Erref:** EZK-012/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Kizkitzako pagadia bakarrik geratzen da, beste dena pinu dago. Basoan egin du lan Josek. Harizti ederrak zeuden Ezkion, baina orain ez da bat ere gelditzen. Dena pinu sartu zen, baino orain ez du balio. Frantziatik pinu asko etorri da, haizeak bota baitzituen.

5. Bizitza guztia basoan

- **Erref:** EZK-012/007
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:13:24

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Basoan egin du lan beti. Taldean ibiltzen ziren. Baserritarrekin egien zuten tratua. Subastan ere hartzen zituzten basoak, Etxezarretaren pinudiak eta. Zumea biltzen ere ibiltzen ziren neguan. Lan gogorra ei zen, eskuak urratuta geratzen ziren.

6. Lau auzoetan eskola

- **Erref:** EZK-012/010
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:15:37. **Bukatu:** 00:18:21

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolako onena zen irakurtzen. 11 urterekin morroi joan zen. Itsasoko eskolara joaten zen. Auzo bakoitzak bere eskola zuen. Neska eta mutil batera ibiltzen ziren Itsason. Familiak oso handiak ziren orduan.</p>

7. Uda eta negu traje eta korbataz ibiltzen zen maisua

- **Erref:** EZK-012/012
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:50

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Aritmetika ikasi zuten eskolan. Irakurtzen ere bai. Baina hiruko erregelara ez zen heldu. Erdaldunak ziren maisuak, bat Valladolidedkoa "ikaragarri jatorra".

Beste bat galiziarra, uda eta negu traje eta korbataz ibiltzen zena. Aspaldi itxi zen eskola

8. Lau apaiz Ezkion eta Itsason

- **Erref:** EZK-012/013
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:21:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eskolatik irtendakoan dotrinara ordu erdiz, komunioa prestatzeko. Antzina-antzina bi apaiz omen zeuden Itsason eta beste bi Ezkion. Urruti zeuden baserriak. Matxinbentan, esaterako, ez zen elizarik garai baten. Medikiak ere urruti joan behar.

9. Tifusa eta pulmonia gaixotasun txarrenak

- **Erref:** EZK-012/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:23:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Zumarragako medikua zuten, baina urruti zegoenez praktikanteak betetzen zituen haren eginkizunak, haurgintzak atenditu eta beste batzuk. Tifusa zen gaixotasunik gogaikarriena. Pulmoniarekin ere jende asko hiltzen zen.

10. Mantzanila eta berbena belarra

- **Erref:** EZK-012/016
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:23:34. **Bukatu:** 00:24:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Mantzanila biltzen zuten urte osorako. Gero, berbena belarrak ("mermen belarra") sendaketak egiteko, eta beste hirugarren bat. Asunak ere erabiltzen ziren odolarentzat.

11. Gau eskolara

- **Erref:** EZK-012/017
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:26:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Neguan joaten ziren, iluntzean pare bat orduz. Soldadutza egindakoak ere bai. Herriko maisuak edo maistrak ematen zuen. Etxea ordu erdira zuten. Linterna edo farola eramaten zuten argi egiteko. Katiuskekin-edo joaten ziren herriraino eta han aldatu egiten zituzten oinetakoak.

12. Goizean goizeko mezara Zumarragara

- **Erref:** EZK-012/018
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:27:43

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Zumarragan feria izaten zen igandetan eta sei eta erdietako mezarako joaten ziren baserritarrak feria aurretik. Arratsaldetan jai, gari- edo belar-lanak zirenean izan ezik.</p>

13. Apaiza leihotik dantza lotuari begira

- **Erref:** EZK-012/020
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:29:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Don Eustakio Mokoroa apaiza, tolosarra, fina omen zen. Festetan dantza lotua egiten zen eta leihotik begira egoten zen hura. Hurrengo igandeko sermoian haren aipamena egingo zuen.

14. San Bartolome festak eta dantzasoka

- **Erref:** EZK-012/022
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:29:46. **Bukatu:** 00:32:56

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>San Bartolometan egiten ziren Itsasoko festak. Eskusoinua eta danbolinteroak egoten ziren. Bigarren egunez dantzasoka egiten zen garai batean baina baina orain galduta dago. Mutilak neska ateratzen zuen dantzara. Inguruko herri eta auzoetan ere egiten da.</p>

15. Garizuman dantzan egiteagatik tximista sartu

- **Erref:** EZK-012/024
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:08

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Garizuman ez zen dantzarik egiten. Ordiziako taberna batean hasi ziren. Tximista sartu eta hainbat hil ziren, eta jendeak esaten zuen jainkoaren zigorra izan zela. Ostegun eta Ostiral Santu egunez ezin zen pilotan eta jokoan egin. Aste Santuan zeremonia handiak egiten ziren; gizonak trajearekin joaten ziren.

16. Prozesio ederrak Itsason

- **Erref:** EZK-012/026
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:35:33. **Bukatu:** 00:37:38

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Prozesio ederrak egiten ziren Itsason, Aste Santuan batez ere. Ama Birjina Doloretakoa ateratzen zen, eta 300 bat metroko itzulia egiten zuten. Maiatzeko Loreak. Corpus Eguneako prozesioa ere oso dotorea zen.</p>

17. Kizkitzako erromeria, inguruko onena

- **Erref:** EZK-012/029
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:45:37

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Kizkitzako erromeria zen bere gazte denboran erromeriarik onena. Nuarbe aldetik, Ataundik eta beste leku askotatik joaten ziren Andra Mari egunez.

18. Afaria neska-laguntzera joandako mutilari

- **Erref:** EZK-012/033
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:48:40. **Bukatu:** 00:50:32

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Udan jaiero egoten zen nonbait erromeria. Mandubian, jaiero. Gero neska-laguntzea, Matxinbentako puntaraino igual. Errezilen afaria ematen omen zitzaion neska-laguntzera joandako mutilari eta Zegaman duro bat.

19. Mutilak musean, neskak dantzan

- **Erref:** EZK-012/035

• **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:00

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Mutilak jaiegun gauetan tabernan egoten ziren afaldu eta musean jokatzeko. Aurrez, eliza atarian pilotan jokatzeko zuten edo boletan ibiltzen. Mutil guztiek ei zekiten musean eta neska guztiek dantzan.

20. Ezkioko Ama Birjina

- **Erref:** EZK-012/039
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:57:25. **Bukatu:** 00:59:27

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Ezkioko Ama Birjina ikusten zuen familiaz. Senide asko izan arren, denak geratu omen ziren ezkongai. Ermita txiki bat eginda dago orain leku hartan.</p>

21. Ezkio aldea autoz beteta Ama Birjina dela eta

- **Erref:** EZK-012/040
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:59:27. **Bukatu:** 01:01:17

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Bera ez zen joan Ama Birjina ikustera. Auto ilara Alegiaraino heltzen omen zen. Zozobarroko andrea ogibitartekoak saltzera joaten omen zen. Hiru taberna ezagutu ditu inguru hartan.</p>

22. Gerrako frontea etxetik hurbil

- **Erref:** EZK-012/042
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:02:18. **Bukatu:** 01:05:33

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerrako frontea etxetik hurbil izan zuten (1936ko udan). Lehenik errepublikazaleak eta gero erreketek. Azken horiek zilarrezko 13 duro harrapatu zizkieten berari. Nafar bat hil zen tiroz.</p>

23. Etxean nafar erreketekak luzaroan

- **Erref:** EZK-012/043
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:05:33. **Bukatu:** 01:07:13

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Etxean nafar erreketekak izan zituzten luzaroan. Gerra bukatutakoan ordaindu zituzten egindako gastuak. Gaizkiago ibili ziren Ormaiztegiko Arane baserrikoak.

24. Gabirian borroka gogorra frontea hautsi zenean

- **Erref:** EZK-012/045
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:08:00. **Bukatu:** 01:09:12

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ormaiztegi aldean zegoen frontea hautsi eta aurrera egin zuten frankistek. Gabirian borroka gogorra izan zen, baina beste lekuetan ez.

25. Sei hildako Itsason, gerra zela eta

- **Erref:** EZK-012/046
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 01:09:12. **Bukatu:** 01:09:57

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Fusilatu bakarra izan omen zen Itsason, baina beste bost soldadu ere hil ziren. Arrosarioa erreztatzen zen herrian, norbait hiltzen zenean.

26. Auzo bakoitzak bere ordezkaria udalean

- **Erref:** EZK-012/047
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:09:57. **Bukatu:** 01:11:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Karlistak gehiago izango ziren nazionalistak baino, baina alde handirik gabe. Auzo bakoitzak bere ordezkaria zuen udalean, bost zinegotzi denera. Alkatea aguazila, praktikantea, epailea... zeuden orduan Itsason.

27. Ezkio-Itsasoko eta inguruko errotak

- **Erref:** EZK-012/048
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:11:22. **Bukatu:** 01:13:11

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Ez zuten goserik pasatu gerra ostean. Errotara gauez joan behar izaten zuten, urruti. Garai hartan eskualdean zeuden erroten berri ematen du. Gabiriak zazpi errota izan omen zituen.

28. Itsaso baino herri txikiagoak asko Gipuzkoan

- **Erref:** EZK-012/049
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:13:11. **Bukatu:** 01:15:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

1914ko liburu eder bat dago Ezkio-Itsasoko udaletxean eta han agertzen da zenbat biztanle zuen orduan herri bakoitzak. Itsasok 714 zituen, Goierriko eta Tolosa aldeko herri askok eta askok baino gehiago.

29. Jokoak galdu zuen familia aberatsa

- **Erref:** EZK-012/050
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:15:45. **Bukatu:** 01:16:59

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bazen familia aberats samar bat Itsason, baina nagusia jokalaria zen eta dena jan zuen. Familia horri buruzko xehetasunak.

30. Iratin basomutil, baina ez gustura

- **Erref:** EZK-012/053
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:19:38. **Bukatu:** 01:21:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Iratin ere egon ziren basoan lanean, baina oso gaizki jaten zuten, eta ez ziren itzuli. Pagoak botatzen jardun zuten. Andra Mari Zuriaren eliza dago Irati, Nafarroa partean.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com